



EMF-REN RANKINGAREN ARAUDIA

Euskal Mendizale Federazioaren Rankinga (EMF Rankinga) sailkapen-sistema bat da, eta urtero hautatutako proben kopuru jakin batetik lortzen da; proba horiek lerroko lasterketen, ultra lasterketen eta lasterketa bertikalen zirkuitua osatzen dute. Korrikalari bakoitzak 2018ko denboraldiko egutegiko proben artean puntu gehien lortu dituen lasterketetan puntuatuko du eta, gutxienez, lasterketa baten puntuazioa hartuko zaio kontuan, eta, gehienez, 6 lasterketena.

PUNTUAZIO-SISTEMA

EMFren edo Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundearen lizentzia duen edozein korrikalarik puntuatu ahal izango du. Lasterketaren antolatzaileak zehaztutako moduan egingo dira izen-emateak, eta araudia, berriz, lasterketa bakoitzak bere ekitaldirako erabiltzen duena izango da.

Rankingak banakako sailkapen bakarra onartuko du kategoria bakoitzeko, eta klubak sailkapen orokor bat, Rankingaren azken sailkapenean oinarritutakoa:

- **Kadetea (gizonak eta emakumeak):** 15, 16 eta 17 urte, hau da, ez dituzte 18 urte bete behar erreferentzia-urtean.
- **Juniorra (gizonak eta emakumeak):** 18, 19 eta 20 urte, hau da, ez dituzte 21 urte bete behar erreferentzia-urtean.
- **Seniorra (gizonak eta emakumeak):** 21 urtetik aurrera (erreferentzia-urtean bete behar dituzte).
- **Klubak:** senior kategoriako 3 mutil onenen eta 2 neska onenen azken puntuazioa hartuko da kontuan.

Gazteen kategoriek ezingo dute parte hartu ultra modalitatean.

Korrikalariak lortu dituen 6 puntuazio onenen batuketa egingo da (4 puntuazio onenak gazteen kategorien kasuan), eta puntuazio altuenak irabaziko du. Berdinketa gertatzen bada, lasterketa gehien egin dituen korrikalariak irabaziko du.

Sailkapen orokorrean lortu duen tokiaren arabera puntuatuko ditu korrikalariak lasterketa bakoitzak, dagokion sexuan, honako puntuazio-taularen arabera: (1000 postura arteko sailkapen guztiek lortuko dituzte puntuak, eta puntu 1 lortuko luke azkenak)

PUNTUAZIORAKO OINARRI-TAULA

1	1000 puntu	21	980 puntu	41	960 puntu	61	940 puntu	81	920 puntu
2	999 puntu	22	979 puntu	42	959 puntu	62	939 puntu	82	919 puntu
3	998 puntu	23	978 puntu	43	958 puntu	63	938 puntu	83	918 puntu
4	997 puntu	24	977 puntu	44	957 puntu	64	937 puntu	84	917 puntu
5	996 puntu	25	976 puntu	45	956 puntu	65	936 puntu	83	916 puntu
6	995 puntu	26	975 puntu	46	955 puntu	66	935 puntu	82	915 puntu
7	994 puntu	27	974 puntu	47	954 puntu	67	934 puntu	...	--
8	993 puntu	28	973 puntu	48	953 puntu	68	933 puntu		
9	992 puntu	29	972 puntu	49	952 puntu	69	932 puntu		
10	991 puntu	30	971 puntu	50	951 puntu	70	931 puntu		
11	990 puntu	31	970 puntu	51	950 puntu	71	930 puntu		
12	989 puntu	32	969 puntu	52	949 puntu	72	929 puntu		
13	988 puntu	33	968 puntu	53	948 puntu	73	928 puntu		
14	987 puntu	34	967 puntu	54	947 puntu	74	927 puntu		
15	986 puntu	35	966 puntu	55	946 puntu	75	926 puntu		
16	985 puntu	36	965 puntu	56	945 puntu	76	925 puntu		
17	984 puntu	37	964 puntu	57	944 puntu	77	924 puntu		
18	983 puntu	38	963 puntu	58	943 puntu	78	923 puntu		
19	982 puntu	39	962 puntu	59	942 puntu	79	922 puntu		
20	981 puntu	40	961 puntu	60	941 puntu	80	921 puntu		

Ekitaldia amaitzen denetik, 15 eguneko epea izango da erreklamazioak egiteko, eta honako helbide honetan egin ahal izango dira: lasterketak@emf-fvm.com.



2018KO RANKINGAREN EGUTEGIA

Proba kopurua: 18

Proba puntuagarrien kopurua: 6 kategoria absolutuan / 4 gazteen kategoriatan (kadetea eta juniorra).

2018ko EMF Rankingeko proba puntuagarriak.

EMF-KO MENDIKO LASTERKETEN RANKINGA - JUNIORRAK			
DATA	TAXPELKETAREN IZENA	MODALITATEA	LEKUA
URTARRILAK 13	KALAMUA BARINAGA JEITSIERA	LINEA - 3,8 KM	MARKINA XEMEIN
OTSAILAK 24	KOLAZIÑO KADETE MENDI EGUNA	LINEA - 15 KM	BEDIA
APIRILAK 22	ALOÑAKO IGOERA	LINEA - 22,6 KM	OÑATI
APIRILAK 29	PAGOETA MENDI LASTERKETA	LINEA - 21 KM	ZARAUTZ
EKAINAK 09	GABEZ TAKARRARAN	LINEA - 23,7 KM	ESKORIATZA
EKAINAK 09	INTXIXU TRAIL	LINEA - 15,5 KM	OIARTZUN
EKAINAK 10	LAKUNTZA ARALAR MENDI LASTERKETA	LINEA - 13,3 KM	LAKUNTZA
EKAINAK 17	AMURIO TRAIL	LINEA - 21 KM	AMURRIO
EKAINAK 17	TOLOSAKO BI TPONTORRAK (T2T)	LINEA - 24,5 KM	TOLOSA
EKAINAK 24	TRIKU TRAIL	LINEA - 21 KM	ETXARRI ARANATZ
IRAILAK 09	AXARI TRAIL	LINEA - 16 KM	IDIAZABAL
IRAILAK 15	INTZA TTUTTURRE KB	KILOMETRO BERTIKALA	INTZA
IRAILAK 23	BERIAIN KB	KILOMETRO BERTIKALA	UHARTE ARAKIL
URRIAK 06	ANBOTO KB	KILOMETRO BERTIKALA	ATXONDO

EMF-KO MENDIKO LASTERKETEN RANKINGA - SENIORRAK			
DATA	TAXPELKETAREN IZENA	MODALITATEA	LEKUA
URTARRILAK 13	KALAMUA BARINAGA JEITSIERA	LINEA - 3,8 KM	MARKINA XEMEIN
OTSAILAK 24	KOLAZIÑO MENDI EGUNA	LINEA - 24 KM	BEDIA
APIRILAK 22	ALOÑAKO IGOERA	LINEA - 22,6 KM	OÑATI
APIRILAK 28	NAFARROA XTREM	ULTRA - 68 KM	ZUBIRI
APIRILAK 29	PAGOETA MENDI LASTERKETA	LINEA - 21 KM	ZARAUTZ
EKAINAK 02	GALDAMES MENDI BIRA	LINEA - 34 KM	GALDAMES
EKAINAK 02	EH MENDI ERRONKA	ULTRA - 67 KM	LEITZA
EKAINAK 09	GABEZ TAKARRARAN	LINEA - 23,7 KM	ESKORIATZA
EKAINAK 09	INTXIXU TRAIL	LINEA - 15,5 KM	OIARTZUN
EKAINAK 10	LAKUNTZA ARALAR MENDI LASTERKETA	LINEA - 25 KM	LAKUNTZA
EKAINAK 17	AMURIO TRAIL	LINEA - 31 KM	AMURRIO
EKAINAK 17	TOLOSAKO HIRU TPONTORRAK (T3T)	LINEA - 43,5 KM	TOLOSA
EKAINAK 24	TRIKU TRAIL	LINEA - 21 KM	ETXARRI ARANATZ
UZTAILAK 13-14-15	EHUNMILAK	ULTRA - 168 KM	BEASAIN
IRAILAK 09	AXARI TRAIL	LINEA - 25,4 KM	IDIAZABAL
IRAILAK 15	INTZA TTUTTURRE KB	KILOMETRO BERTIKALA	INTZA
IRAILAK 23	BERIAIN KB	KILOMETRO BERTIKALA	UHARTE ARAKIL
URRIAK 06	ANBOTO KB	KILOMETRO BERTIKALA	ATXONDO

EMF-KO MENDIKO LASTERKETEN RANKINGA - KADETEAK			
DATA	TAXPELKETAREN IZENA	MODALITATEA	LEKUA
URTARRILAK 13	KALAMUA BARINAGA JEITSIERA	LINEA - 3,8 KM	MARKINA XEMEIN
MARTXOAK 24	KOLAZIÑO KADETE MENDI EGUNA	LINEA - 15 KM	BEDIA
APIRILAK 22	ALOÑAKO IGOERA	LINEA - 16 KM	OÑATI
EKAINAK 09	GABEZ TAKARRARAN GAZTEAK	LINEA - 9 KM	ESKORIATZA
EKAINAK 09	INTXIXU TRAIL	LINEA - 15,5 KM	OIARTZUN
EKAINAK 10	LAKUNTZA ARALAR MENDI LASTERKETA	LINEA - 13,3 KM	LAKUNTZA
EKAINAK 17	AMURIO TRAIL	LINEA - 11 KM	AMURRIO
IRAILAK 09	AXARI TRAIL	LINEA - 16,4 KM	IDIAZABAL
IRAILAK 15	INTZA TTUTTURRE KB	KILOMETRO BERTIKALA	INTZA
IRAILAK 23	BERIAIN KB	KILOMETRO BERTIKALA	UHARTE ARAKIL
URRIAK 06	ANBOTO KB	KILOMETRO BERTIKALA	ATXONDO



EMF-REN KONPROMISOAK ANTOLATZAILEAREKIKO ETA ALDERANTZIZ

EMF Rankingaren barneko proben antolatzaileek % 20ko deskontua egingo diete korrikalari federatuei izena ematen dutenean.

Izena emateko epea amaitzen denean, EMFra bidaliko dira parte-hartzaileen zerrendak, ekitaldiaren aurretik federatuta dauden edo ez egiaztatu ahal izateko. Horrela, antolatzaileek aurrez jakingo dute zein korrikalarik egin behar duen aseguruua.

Antolatzaileek lasterketako sailkapena helarazi behar diote EMFri, EMFk Rankinga presta dezan. Lasterketaren ondoren, **egun bateko** muga izango dute antolatzaileek emaitzak helbide honetara bidaltzeko: lasterketak@emf-fvm.com. Horrela, EMFk azkar argitaratu ahal izango ditu emaitzak. Sailkapenak bidaltzeko formatuari dagokionez, EMFk emandako Excel formatuan igorri beharko dira. Proba bakoitza amaitzean, ahal bezain azkar eguneratuko da EMF Rankinga.

EMF Rankinga osatzen duten lasterketen berri emateko konpromisoa hartzen du EMFk.

Antolatzaileek behar duten materiala ere eskainiko du, betiere, eskura dituen baliabideen arabera (karpa, balizak, walkie-talkieak...).

SARIAK ETA OPARIAK

EMF Rankingaren zirkuitua amaitzean, txapela eta materiala emango zaie sari moduan kategoria bakoitzeko **irabazleei**. Sari-banaketa hurrengo urteko EMFren galan egingo da:

- **Kadetea (gizonak eta emakumeak): txapela eta oparia.**
- **Juniorra (gizonak eta emakumeak): txapela eta oparia.**
- **Seniorra (gizonak eta emakumeak): txapela eta oparia.**
- **Klubak: txapela eta oparia.**

EMF Rankingaren irabazleek Euskal Mendi Lasterketen Selektzioarekin parte hartu ahal izango dute Mendi Lasterketen Espainiako Txapelketan edo talde horrek hurrengo urtean parte hartuko duen beste probaren batean.

Bestalde, kategoria bakoitzeko irabazleek doan izango dute hurrengo denboraldiko Rankingerako izen-ematea, eta EMFk ordainduko ditu izen-emate horiei dagokien kopuruua.



Materiala zozkatuko da gutxienez Rankingeko 6 probatan parte hartu duten guztien artean. Zenbat eta lasterketa gehiagotan parte hartu, orduan eta handiagoa izango da zerbait egokitzeko aukera.

- 6 probatan parte hartuta = 1 zenbaki
- 7 probatan parte hartuta = 2 zenbaki
- 8 probatan parte hartuta = 3 zenbaki
- 9 probatan parte hartuta = 4 zenbaki
- 10 probatan parte hartuta = 5 zenbaki

Amaitzeko, sari berezia izango da lasterketa gehien egin dituzten 2 pertsonentzat.

Lasterketen batzordeak egingo ditu zozketak, eta emaitzak sarean argitaratuko dira (webgunean, Facebooken). Sariaren bat irabazi dutenek EMFren Gasteizko bulegoetara joan behar dute sariak jasotzera.